

EGUNKARIA AURRERA
(BAI EUSKARARI - ESPETXERATUAK ASKATU)



Irakurle guztiok dakizuenez aurtengo otsaila, benetan “otsoen” hila gertatu zaigu Euskal Herrian. Egin ere triskantza galanta egin dute Euskararen eta Irizpide Askatasunaren aurka Espainiako estatuko botere basatiek. Artalde osoa aztoratzerainokoa.

Garai batean zenbait aldiz isilarazia izan zen aldizkari honen orrietatik gure elkartasunik beroena agertu nahi diegu euskara hutsez kaleratu izan den Egunkariari eta bertako kide guztiei.

Aparteko agurra eta elkartasuna agertu nahi diegu batez ere espetxeratuak izan diren bertako zuzendaritza taldekoei. Berri gaiztoek diotenez, gainera, ordu luze eta latzak igaro behar izan dituzte atxilotuak izan ondoren.

Gure herritar askok dakite, zoritxarrez, zer nolako zigorrak jasaten diren halako lekuetan. Hor ditugu azken aldi hauetan Nazioarteko Amnesty Internationalek urterik urte salatu izan dituen tortura-egintza ugariak.

Zoritxarrez, herri zibilizatuei dagokien “demokrazia” hitza harro aldarrikatzen duten hainbat herrik pertsonen duintasunari uko eginez, sarri jokatu ohi dute abererik basatienean antzera.

Gaur egun, gainera, teknika hain aurreratuak izanik inolako markarik utzi gabe ezarri ohi dira tratu txarrak bazterretan. Indarrean diren salbuespenezko legeek ere horretarako bide zabala eskaintzen dute. Ez dute torturatua ez izatea bideratzen.

Are gehiago, salaketarik eginez gero, teknika berriak erabiliz ageriko markarik geratzen ez denez eta, hori horrela, epai-learen aurrean frogatzea zaila izaten denez, torturatua izan den pertsonak salatua eta zigortua izateko mehatxua du bere buruaren gainean. Oraingoan ere estatutuko botereek hala jokatu dute, komisarian zer gertatu den aztertzearen orde.

Oraing dela gutxi arte, “demokraziaren lurretan” edozer defenda daitekeela indarkeriarik gabe aldarrikatu izan dutenek beraiek ageri zaizkigu gogo-asmoetako mozorroak erantsirik “zigorgabetasunik” handienez herritarren eskubideak zanpantzen. Hemen edozer eska daiteke Herri-eskubideen babeserako ezinbestekoa den Autodeterminazio eskubidea izan ezik!!!

Oraingo honetan egin duten sarraskiak, zorionez, erantzun irmoa jaso du gure herrian. Horren argibide argia izan dira Donostian burututako manifestaldia jendetsua eta ondoko egunetan bazterretan egin izan diren protestaldi ugariak. Baita martxoaren 13an Euskal Herri osoan zehar eginiko ordubeteko lan-etenaldia eta egunean zeharreko manifestaldiak eta kontzentrazioak ere. Euskal Herri euskaldun osoa jarri dute zutik egintza deitoragarri horiek. Hala behar zuen izan, izan ere!

Dagoeneko ageriko egin denez *Egunkaria*, gutxienez, sei hilabeterako ixteko agindu du epaileak. Horrela etorkizunera-

ko ateak itxi dizkio Egin-en kasuan egin zutenaren antzera. Orduan protestaldi txikiak izan ziren, oinarrizko zio nagusiak (adierazpen-askatasuna eta langileen eskubideak) berdintsuak izan ziren arren. Oraingoan ez dadila irizpide kontua izan!

Lantxo honen asmoa ez da aparteko balorazioa egitea. Hori ongi baino hobeto eginik ageri zaigu jarraian aurkezten dizkizuegun lekuko idazkietan. Beste askok esandakoak ere jaso genitzakeen. Nolanahi ere, nahikotzat jo dugu alor ezberdinetako ordezkarien iritzia zuen gogoetarako eskaintzea. Azkenik, Egunkariaren sorrerako asmoen laburpena ere jaso nahi izan da, aurrerantzean nondik jo beharko genukeen hausnartzeko.

1.- Kontseiluaren adierazpenak

Euskal Herrian euskararen alde lanean ari diren elkarte gehienek ordezkaria den KONTSEILUAK Egunkariari gertatutako salatzekeo hainbat ekimen bultzatzeaz gainera, bi adierazpen adieratsu argitaratu ditu. Hemen dituzu hurrengo lerro hauetan.

1.1.- Kontseiluko kideek eginiko lehen adierazpena

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak Euskaldunon Egunkariaren kontra egin den erasoaren aurrean esan behar du hau ez dela eraso isolatu bat. Gaur Euskaldunon Egunkaria, Ikastolak, Jakin, Argia eta Plazagunea izan dituzte jomuga; lehen AEK-k, Zabaltzenek, Euskal Herrian Euskaraz-ek, Abokatu Euskaldunek, IKAK eta euskalgintzako beste hainbat erakundek pairatu dute egoera hau.

Argi dago estrategia bat egon, badagoela. Estatuak dituen baliabideak erabiltzen ari dira normalizazioa eteteko. Horregatik, estrategia hori ez da kanpaina puntual bat ezta koiunturala ere. Askoz ere serioagoa eta sakonagoa da. Azken urteotako hizkuntza normalizazio prozesuari beste kolpe eman

nahi izan zaio, euskaraz argitaratzen den egunkari bakarraren kontra joz.

Kontseiluaren ustez, ekintza judizial eta polizial horiek guztiek Euskal Herriaren nortasunaren elementu inportanteenak suntsitzea dute helburu, hizkuntz normalizazioa erabat eten nahi dute. Euskararen normalizazioaren aldeko jarduera desberdinak zigortzeko bidean beste urrats bat baino ez da Euskaldunon Egunkariaren kontrako eraso.

Euskal Herriaren izaeraren elementurik funtsezkoena eta herritar guztion ondarea den gure hizkuntza interes politikoen arabera erasotzea onartezina da. Hori dela eta, bi dei luzatu nahi ditugu: lehena, gizarteari, euskararen defentsan eta normalizazio ahaleginetan eragile aktibo izan dadin eta, bigarrena, berriz, instituzio, sindikatu, alderdi eta gizarte erakunde guztiei, euskalgintzaren defentsan inplika daitezten. Izan ere, gehiengo soziala duen euskararen aldeko jarrerak behar duen akordio politiko sozial zabala egiteko garaia dela uste dugu eta horretarako behar diren bideak, guztiek jar ditzatela eskatzen dugu.

Kontseiluak dei egiten die herritar guztiei egoera bereziki larri honen aurrean erantzun sendoa eman dezaten. Zentzu horretan, Kontseiluak "Egunkaria aurrera. Bai Euskarari!" leloarekin Donostian bihar egingo duen manifestazioan parte hartzeko deia zabaldu nahi du. Eta eskaera bat egin behar diegu bertaratuko diren guztiei Euskaldunon Egunkariaren ale bat eraman dezaten, Egunkariak bizirik baitarrai oztopo guztien gainetik.

Kontseiluak atxilotutako lagunetik eta senideetik elkartasuna adierazi nahi du, gure artean euskararen normalizazioa sustatzeko eta bultzatzeko herri ekimenetan parte hartuz. Euskaldunon Egunkariak betetzen duen funtzio soziala ezin dute indargabetu, eta ez dute indargabetuko.

Andoainen, 2003ko otsailaren 21ean

1.2.- Kontseiluak Donostiako manifestazioan irakurritako agiria.

Bai euskarari, Egunkaria aurrera

Milaka eta milaka lagun elkartu gara berriro ere euskarari bai esateko, Euskaldunon Egunkariari bai esateko.

Kontseiluak ez du inolako zalantzarik Euskaldunon Egunkariak aurrera egingo duela. Egoera zailenetan ere euskal gizartea bere hizkuntzaren aldeko ekimenak abian jarri eta garatzeko gai izan da. Horregatik, orain ere Egunkaria aurrera aterako da, beste proiektu asko bezala euskal gizarte osoaren sostengua eta lanari esker.

Ikastolak, helduok euskalduntzeko mugimendua, euskal kultura sustatzeko erakunde desberdinak, euskararen normalizazioaren aldeko mugimendua eta hainbat erakunde milaka eta milaka euskaltzalek bultzatu eta garatu dituzte.

Horregatik, Acebes ministroari esan behar diogu ez dugula bere laguntzarik behar horretarako. Egoera hau hain larria eta gogorra izango ez balitz barre egingo genuke bere hitzak entzunda. Euskarazko komunikabideak itxiz, euskararen alde diharduten erakundeen lana oztopatuz, edo gaixo dagoen pertsona bat, Pello Zubiria, atxilotuz eta inkomunikatuz ez diozue inolako laguntzarik ematen ez euskarari, ez gizarte harremanei, ez herritarren elkarbizitzari. Euskarari egin diezaiokezuen mesederik handiena hizkuntza eskubideak aitortzea da eta euskara eta euskal kulturari inolako trabarik ez jartzea.

Gaur hemen bildu garenok euskaltzaleak izateaz gain, euskal herritar ere bagara. Eta aitortzen dugu herri honek eskubidea duela bere komunikabideak sortzeko, bere hizkuntza garatzeko eta beste edozein herri bezala bizitzeko.

Mobilizazio honetan zaudeten alderdi politikoei dei zuzena egin nahi dizuegu euskararen defentsan eta normalizazio ahaleginetan eragile aktibo izan zaitezten. Egoerak eskatzen du akordio politiko zabala egitea, euskararen normalizazioa gara-

tzeko akordio hori ezinbestekoa baita. Euskalgintzatik eskaera bat egiten dizuegu: ausardiaz jokatzeko, gure hizkuntza eta gure herri izaera aurrera ateratzen laguntzeko iritziz politiko desberdin guztien gaineratik. Hori izango baita gure etorkizun baketsurako ekarpen eta bermerik hoberenetakoa.

2.-Euskal idazleen elkarteko zenbait kideren adierazpena

EGUNKARIA hitzaren lekua

Euskaldunon Egunkaria itxi dute, eta horren aurrean euskal idazleok, gaur egun, mundu osoan eta Euskal Herrian ere, errealitatearen eta egunkarietan agertzen diren berrien artean zabaldutako leize sakon eta arriskutsuaz ohartaraziz eta gure hitzarekin, amildegi hori ixten lagundu dezakegulakoan, zerbait esan nahi dugu EGUNKARIAren itxieraren inguruan irakurri eta entzun dugunaz:

Adierazpen askatasunaz eta aniztasunaz

1.- Egunkaria itxi dutenek, Euskal Herrian genuen hitzaren agertoki bikain bat itxi dute, bertan idatzi dugunon adierazpen askatasuna eta ideien aniztasuna beti-beti bermatu dituen lekua. Eta ez gurca bakarrik, baita bertan agertu nahi zuen edozeinena ere. Egunkaria ezagutu gabe hari buruzko iritzia eman duten guztiei jakinarazi nahi diegu bertan PSOE eta PPko hainbat kideren iritziz eta artikulua ere argitaratzen zirela, *beste alderdietako kideenekin bezalaxe*, batzuetan egunkariko langileek gazteleratik propio itzuli ondoren. Egunkari honen azken elkarrizketa luzeetako bat Fernando Savaterri egin ziztaion.

Ideietan, beraz, Euskaldunon Egunkaria *aniztasunaren esparrua zen. Kultur eta iritziaren aniztasunarena*. Kulturaren suak bere garretan pentsamenduaren agerpena, sormenaren lilura, hitzaren indarra transmititu behar baititu.

Nahiago genuke euskal kulturari halako errespetuz hurbilduko balitzaizkio erdal komunikabideak. Aldiz, gaztelerazko egunkarietan ez dugu sumatu euren ildo editorialarekin bat ez

datozen pentsalariekiko errespetu berdina. Zein egunkarik itzuliko luke testu bat euskaratik gaztelaniara irakurleei betikoa ez den beste ikuspuntu bat helarazteko? Ez al litzateke polita izango irakurleentzat?

2. - *ETari babes ideologikoa ematen omen ziola baina, oker-rago dena, Egunkaria ez dute itxi bertan idazten ziren gauzengatik. Milaka eta milaka artikulua itzultzeko lana hartuko balute, ikusiko lukete horietako askotan gaitzesten zela ETaren ibilbidea, eta hainbatetan alderdi konstituzionalisten eskabideak jasotzen zirela. Beraz, ez dute idatzitakoaren aurka jo, idazteko euskara erabiltzearen aldeko apustua egin zuen medioaren aurka baizik, euskararen aurka inolaz. Idatzitako bera, euskaraz idatzita dagoelako, butsaren hurrengo bilakatu da, berriro.*

Hain zuzen ere, Egunkariaren aurkako eraso euskararen aurkako eraso ideologikoa delako, Egunkariarekin bat egin ez dutenei ez zaie bururatzen hari aurre egiteko euskarazko beste egunkari bat sortzea. Horri aurre egiteko bide bakar bat erabiltzen dute: dagoen euskarazko egunkari bakarra ixtea. Gero, hitzen esanahiak mozorrotuz, diote hori ez dela euskal kulturaren kontrako eraso. Hori kulturari gerra egitea dela iruditzen zaigu..

Hizkuntzak maite ditugu, botereak ez bezala

3.- Hizkuntzak elkar maitatzeko sortuak dira. Gaztelera ere gurea dugu. Asko maite dugu gaztelera, sortzeko eta komunikatzeko tresna bezala, gainerako hizkuntza guztiak maite ditugun bezala. Euskara ere horrelaxe maitatua izan dadin nahi genuke.

Egunkaria itxi dutenek, ordea, hizkuntzaren degradazio eta perbertsio itzela erakutsi dute: edonork esango luke euskara ETarekin sortu zela eta euskarak ekarri duela biolentzia. Hizkuntza honen politizazioa salatzen dutenak dira lehenak

hizkuntza hau baztertzen eta gutxiesten. Herri hau beste edozeinek bezala maite dutela diotenek ez diote, era berean, euskarari lekurik egiten euren egitasmoetan, euren bizitzetan. Eta euskarak beste hizkuntzak bezalakoxea izateko beste asmorik ez dauka.

4.- *Hitzaren boterea oinperaturik botererena daiteke hitz zilegi bakarra. Gezurra errepikatuz egia bilakatzeko abaleginean ari da boterea, eta guk galdetzen dugu: Egunkaria itxi dutenek noiz arte jarraituko dute euren identitatea finkatzeko gu etsai publikoen gisa erabiltzen?*

Euskaldunok ez dugu susmagarri bihurtutako hizkuntza batean idatzi nahi, ez eta susmopeko herrialde batean bizi nahi. Ezin dugu onartu susmopeko egoera gure bizitza normalaren ezaugarritzat, *bitzarekin elkarbizitza indartu nahi dugunok.*

Hitzarekin elkarbizitza indartu nahi dugunok anitzak gara, eta aniztasunean bizi nahi dugu elkarrekin, eta hitz hau horren gogoko dutenek ez lukete abaztu behar gizarteko arazotak, askotan, ez direla kabitzen interes askoren mendeko politika aldakor baten eskutian, eta politikak, aspalditik, ez diola konponbiderik eskaintzen gizartearen premiei. Gogoan hartzekoa da Donostiako manifestaldia ez zuela ezelango alderdi politikok deitu. Eta bi eguneko aurrerapen hutsaz deitua izan arren, aspaldian ikusitako manifestaldirik jendetsuenetakoa izan zen. Hori oso adierazgarria da errealitatea datuen argitasunean aztertu nahi duen edozeinentzat.

Esperantzari leiho bi: auzolana eta literatura.

5.-Euskaldunon Egunkaria herri ekimena izan zen hasierahasieratik. Euskarak, beste babesik ezean, hiztunen eta irakurleen babesa izan du, babes afektiboa eta erabilpenaren babesa. Jende horrek eman dio baita babes ekonomikoa ere. Euskara hizkuntza moderno bihurtzea beste asmorik ez duen

jendea da. Egunkaria itxi dutenek ezin omen dute hori ulertu, eurak ez bide dutelako halakorik egiteko premiarik izan.

Auzolana, konpromisoa, hori izan da euskal kulturaren hainbat esparrutan nagusi. Eta horrelako erasoen aurrean, geroa ere euskal kultura indartzeko auzolana eta herri ekimena beharko ditugu.

Idazle on ekimen nagusia, aurrerantzean ere, literatura izango da. Herrialde batzuetan, literatura, tamalez, bigarren mailako zerbañt bihurtu da. Euskal Herrian, ordea, behar-beharrezko duela iruditzen zaigu gaur egun. Lehen mailako beharra. Euskara susmopetik atera ahal izateko, hitza higatu ez dadin ñabardurarentzako espazioa behar da, ñabardurarentzako, ezberdintasunerako, aniztasunerako, elkarrekin bizi gaitezkeela aldarrikatzeko.

Donostian, 2003ko martxoaren 1ean

3.- Sindikatuek herriari zuzendutako agiria

Euskaldunon Egunkariaren itxiera salatzeke eta euskarari eta adierazpen askatasunari egindako erasoen aurka daudela agerian uzteke, Euskal Herriko sindikatu gehienek -ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE, ELB, HIRU eta EGAS-ordu bateko lanuzteak egitera deitu dituzte langileak martxoaren 13an. Hona hemen hori dela eta ageriko egin duten agiria:

Bai euskarari eta bai EGUNKARIARI

Martxoaren 13an bai euskarari, adierazpen askatasunari, herriari, Euskaldunon Egunkariari.

BAI euskarari. Euskara herri honen hizkuntza, gure hizkuntza dugu. Hizkuntza oro legez, altxor bat da, baina munduan diren milaka hizkuntzaren artean euskara da gure ahots berezia. Euskarak, anitza izanik, bat egiten gaitu.

Euskara zaindu eta babestea dagokigu, gure arbasoengandik jaso dugun ondarea aberastu eta indarberrituta ondorengoei utzi nahi diegulako.

BAI normalizazioari. Euskara nonahi erabili eta entzutea nahi dugu, baita hedabideetan, hezkuntza sistema osoan, teknologia berrietan, lan munduan. Nahi izanez gero, gure hizkuntza gaurko gizarterako tresna egokia izango da.

Euskararen normalizazio betea, hots, eguneroko bizimoduan eta oztoporik gabe garatzea, bizikidetzaren normalizatorako bidean ere lagungarria izango da.

BAI euskarazko hedabideei. Euskal Herria txikia da, eta herri txikiak zailtasunak izan ohi dituzte alor askotan, are gehiago egungo globalizazio oldarkorrean. Hedabideak gero eta esku gutxiagotan jausi ahala, gero eta uniformeago bilakatu ahala, hurrengo prentsak, euskaraz adierazten den prentsak herri honi nor izaten jarraitzen laguntzen dio.

Euskarazko hedabideak bultzatzeko eta erabiltzeko borondatea eta konpromisoa adierazi nahi dugu. Gure esku dagoena egingo dugu honelako proiektuak gauza daitezen.

BAI Egunkariari. Egunkaria ezean, ahots baten faltan gaude, hitz idatzia kentzen zaigu. Herri honek kalean eta kioskoetan agertu du euskarazko egunkari bat babesteko konpromisoa; guztiok -erakunde, alderdi politiko, eragile sozial ala herritar-geure egin dezagun.

BAI adierazpen askatasunari, informazio eskubideari eta aniztasunari. Guztiok dugu egiazko informazioa eta askatasunez adierazitako iritzia emateko eta jasotzeko eskubidea. Baita norberak informazio-iturria hautatzeko eskubidea ere.

Halaber, kazetari eta hedabide guztiei zor zaie itxiera, jazarpen eta beste inolako mehatxurik jaso gabe beren lana egin eta informazioa hedatzeko aukera.

BAI Egunkariako langileei. Egunkariako langileen enplegua eta etorkizun profesionala bermatu beharra dago. Ezin da alferrik galdu hamahiru urteko ibilbidean lan itzelez jasotako proiektua eta euskararen hedapen eta normalizazioaren aldeko lan eskerga.

BAI atxilotuen askatasunari. Gure kulturgintzako hainbat pertsona eredugarri bezain beharrezkoak zakarki atxilotu dituzte eta, tratu txarrak eta torturak jasan ondoren, gehienak espetxeratuak izan dira. Orain arte lan handia egin badute, aurrerantzean ere horretan jarraitzea nahi dugu. Etxean behar ditugu.

4.- Kultur sortzaileen agiria

Kultur sortzaileen (musikari, aktore, dantzari, artista, idazle, itzultzaile, bertsolari eta zinemagileak) izenean, Anjel Lertxundik honako testu hau idatzi eta irakurri zuen atzo (2003-III-12) Andoainen egindako ekitaldian irakurritako idazkia.

Askatasunaren eremu

“Euskara askatasunaren eremu izan dadila dut amets; hizkuntza oro produktu sozial bat da, mendeetan eta mendeetan jaiotza, klase eta lanbide desberdinetako jendeek sortua eta garatua. Askotarikoa izateak aberasten du edozein hizkuntza, euskara ere askotarikoa egiten jarraitzea zor diogu etorkizunari.

Halaber, komunikazio arin eta atseginarean eremu ere izan dadila nahi nuke euskara, jende guztiarengana heltzeko ahalegina ere askotarikoa izaten saiatzea baita.

Gure hizkuntzak ez du, bere txikian, komunikabide asko izateko modurik; bestalde, euskara batu beharrak ezin du elitismoa bultzatu ahots baztertuen edo hezi gabeen kaltetan (giza aukera gutxien dituzten ahotsen kaltetan, hain zuzen). Euskaraz egindako ahalegin orok kontutan hartu behar dituen gorabeherak dira, ene ustez.

Axularrek baditu diodan hori guztia laburbiltzen duten hitz egoki askoak. Ia poema baten moduan funtzionatzen dute eta edozein proiektu kulturalaren ateburuan jartzeko modukoak iruditzen zaizkit:

Ez zail, baizik erraz.
Ez itxi, baizik zabal.
Ez pisu, baizik arin eta atsegin.

Erraztasuna, zabaltasuna, arintasuna eta atsegina bilatzen nintuen goizero, artean pijama jantzian, etxeko atariraino Egunkaria-ren bila jaisten nintzenean.

Euskara askatasunaren eremu nahi dudalako eta komunikazioari arintasuna eta atsegina eskatzen dizkiodalako, zain nago noiz hasiko naizen berriro etxeko atarira jaisten horien guztien bila”.

2003ko martxoaren 12an

Amaitzeko Jexuxmari Zalakain , Egunkaria Sortzen-eko ki-deak *Garan* martxoaren 10an argitaratutako *Egunkari bat euskaldunontzat* gogoeta-lanean eskaintzen digun gogoetako atal bat jarriko dut.

“Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu Miren Azkaratek idatzitako artikuluan ezin dut iritzi maltzurrik igarri, baina bada zera zenbait hitz, kontzeptu eta esamolde, objektiboak izanda ere, zorrozten hasiz gero eta eskarmentuaren amua botata, erabat garbiak ez direnak: «guztiok asmatu» behar dugun «proiektu berria», «zenbat eta egunkari bakar hori askotarikoagoa izan, orduan eta sendoago hermatuko du bere burua proiektu profesional gisa», «euskaldun eta euskaltzale den-dena bere baitan hartzeko gai izango dena», «proiektu berria guztion artean definitzeko» prest daudela, etab. Berriro errepi-

katu nahi dut, badaezpada ere, ez dudala nik hitz horietan hasieran aipatutako eta litekeena den asmo gaizto horren egiaztapenik topatzen; are gutxiago, Azkarate andereak berak espresuki esaten duenean: «Eredu doktrinarioan eta eredu gubernamentalaren artean, beti egon da eta egongo da eredu profesionala», eta aurrerago, «ez da euskarazko egunkari bat izatea bakarrik, baizik bere buruaren jabe izango den egunkaria egitea». Orain hamahiru urte izandako eztabaida garra-tza ezagutu zenutenok gutxienez ez didazue ukatuko erne sa-mar ibiltzeko motiborik ez dagoenik, are gehiago Jaurlearitzaren inguruan dabilen katedradun unibertsitario batek lasai asko esan duenean telebistan unea aprobetxatu be-har dela «egunkari zabalagoa eta hobea» kaleratzeko. Hobea ahal bada, bai, jakina, baina ba al dago inor gure artean «Euskaldunon Egunkaria» baino egunkari zabalagorik aurki-tzeko kapaz izango denik? Gubernamentala behintzat ez ze-nez, Azkaratek berak ere ez digu batere argitzen zein den «Euskaldunon Egunkaria»-ri dagokion eredu-a: doktrinarioa ala profesionala. (...)

Moises-ek Sinai mendian juduei agindutako arauak hamar izan baziren, hamaika agindu aurkeztu zituen Egunkaria Sortzen taldeak (1989-XII-10ean, Durangoko Azokan) egun-kari txukun eta ganorazkoa egiteko euskaldun guztiontzat. Urte mordoska joan diren arren -eta itxi berri duten egunkaria kudeatu dutenek modu eredugarrian bete dituztela aitortuta-hamaika agindu horiek zein diren gogoratu beharra dagoela-koan nago, egunkari «berria» egiteko unea iristen bada, itxita-koa bezain ona, askotarikoa, zabala, ez gubernamentala, eta denon zerbitzuko-a egiteko.

Lehenik «euskaltzalea» [ez soilik euskalduna]: «Herri honek behar duen proiektu nazionalean euskal kulturaren birrerai-kuntzak funtsezko papera bete behar baitu»; «nazionala», gero: «Lurraldetasunaren aldetik nazionala izatea ere funtsezkoa deritzogu, gure herriak gaur egun nozitzen duen zatiketa ad-

ministratiboaren gainera»; «baterakoia», hirugarrenik: «Setakerien gainera egunkariaren alde elkar daitezkeen indar guztiak behar baititugu batu»; «zabala», laugarrenik: «Astakeria litzateke, egun, irakurlearen osotasunera zuzentzen ez den egunkari bat argitaratzea. Gakoa, bada, ordenamendu juridikoaren baitan formula egoki bat aurkitzean datza. Finantzaketa abalik eta partaidetzarik handiena lortuko duena batetik, eta, bestetik, inori ez dakion iruzur egin, zainduko duena, denborak aurrera egin ahala esaterako, egunkaria talde edo erakunderen baten tresna bihurtu dela eta»; «independ(i)entea erakunde politikoetatik», eta «independ(i)entea» erdarazko beste medioetatik -bi aldiz independentea, beraz; «ez instituzionala», «(anti-instituzionala ere ez)»; «diruz lagundua»: «Arlo horretatik etor daitezkeen kontrol behar guztiei aurre egitea uka ezinezko behar bat dela irizten diegu»; «militantea»: «Proiektu honek bertan parte hartzen dugun guztion militante joeran izango du bere etorkizuneko garantzia»; «profesionala», kalitatea erdiesteko, «etorkizuna horrek erabakiko baitu»; «berria», «indar berriz proiektu berrietan apustu egiteko garaiak baititugu hauek».

Badugu zer hausnartu eta zer sakondu gure elkartasunezko hitzak haize-boladek batetik bestera daramatzaten lasto-hondarren antzekoak izan ez daitezen. Elkartasuna dugunez gure pailanka aurki dezagula euskarria euskal mundua altxatzeko.

Patxi Uribarren Leturiaga